

IRAKASKUNTZA-GIDA

2018/19

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25967 - Euskararen Arauak eta Erabilerak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

"A Hizkuntzako Ahozko eta Idatzizko Adierazpena I" eta "A Hizkuntzako Ahozko eta Idatzizko Adierazpena II" ikasgaien helburua da lehen mailako ikaslea modu mailakatuan ahozko nahiz idatzizko testu genero akademiko eta zientifikoaren erregulartasun linguistiko, testual eta diskurtsiboez ohartzea eta horien erabileran trebatzea. Arau gramatikalak menperatzeaz gain, ikasleak berebiziko arretarekin ekingo dio testu akademikoaren komunikazio mailako eskariei erantzuteari, generoaren arabera hizkuntz baliabide egokiak erabiliz (erreseina, azalpen testua, ahozko aurkezpena, e.a.).

Azalpen helburua duten testuen gaineko lana egiten da bereziki ikasgai hauetan, ahozko eta idatzizko adierazpideen arabera egokitzapen eta gaitasunak landuz. Mintzairaren erabilera modu kokatuan (egoerak eskatzen dituen egoera eta helburu jakinak kontuan hartuz) lantzen da, jakintza deskontestualizatuei baino, egiten jakiteari aparteko balioa emanez.

Ikasleak oso aintzat hartu beharreko ikasgaia da unibertsitate mailan lantzen diren edukien eta hizkuntzaren arteko harremana estua baita. Ikasleak bere mintzairaren eta idazkeraren maila areagotzea garrantzitsua da graduan zehar landuko dituen edukien ulermena bermatzeko eta baita eduki horiek barneratu dituela erakutsi dezan ere.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

E1. Ahozko nahiz idatzizko testu genero akademikoetan trebatzeko beharrezkoak diren oinarriko baliabide komunikatibo eta testualak bereganatzea.

E2. Testu generoen (erreseina, ahozko azalpena, e.a.) arabera hizkuntz erregulartasunez ohartzea.

E3. Testu generoak eskaintzen dituen erregulartasunak komunikazio egoera eta helburuen arabera egokitzen ikastea, bereziki egoera formaletan trebatuz.

E4. Testuen ekoizpenean trebatzea: zuzentasun gramatikalaz gain, edukien planifikazioa eta testu mailan aritzeko gaitasunak garatzea (kohesioa, koherentzia, e.a.).

E5. Euskararen egoera soziolinguistikoa ezagutu eta aztertzea. Euskararen egoera hizkuntza gutxitua den aldetik erreparatzea, beti ere hizkuntz aniztasuna kontutan izanik.

E6. Euskara estandarra eta honen erabilera modu eta esparruez jabetu eta hausnartzea.

Moduluko gaitasunak:

M01-CM01: Nork bere hizkuntza ahoz eta idatziz menderatzea.

Tituluko gaitasunak:

G001: Euskaraz erraztasunez, zehaztasunez eta hizkuntza-aberastasunez komunikatzea, ahoz nahiz idatziz, erregistro eta maila nagusietan.

G008: Hizkuntzarekin, literaturarekin eta kulturarekin lotutako mota guztietako dokumentazioa eta informazioa aurkitzea, erabiltzea, aztertzea, sintetizatzea eta ebaluatzea modu kritikoan.

MECeko gaitasunak:

MEC1: Ikasleek bigarren hezkuntzaren oinarri orokorreko ikasketa arlo bateko jakintzak izatea eta ulertzea erakutsi izana, eta testuliburu aurreratuak erabiltzeko maila eta ikasketa arloko abangoardiatik etorritako jakintzek inplikatzeko dituzten zenbait alderdi ezagutzeko maila erakutsi izana.

MEC2: Jakintzak lanari edo bokazioari modu profesionalean aplikatzen jakitea, eta argumentuak defendatuz eta ikasketa arloko arazoak ebatziz frogatzen diren gaitasunak izatea.

MEC3: Datu garrantzitsuak biltzeko eta interpretatzeko gaitasuna izatea (normalean, ikasketa-arloaren barruan); hartara, gizarteko, zientziako edo etikako gai garrantzitsuei buruzko gogoetak barneratzen dituzten iritziak emateko.

MEC4: Informazioa, ideiak, arazoak eta irtenbideak publiko espezializatuari edo ez-espezializatuari transmititzeko gai izatea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Euskara gaur
2. Euskararen aldaerak, euskara estandarra eta arauak

3. Idatzizko testuak: erreseina
4. Ahozko testuak: jendaurreko azalpena

METODOLOGIA

A) Eskolaz kanpoko jarduerak

- Gaiak ikastea (CM01).
- Bibliografia irakurtzea eta lantzea (CM01).
- Alderdi gramatikalak zuzentzen laguntzeko baliabideak eskuratzea.
- Idatzizko erreseina lantzea (CM01).
- Jendaurreko ahozko azalpenak eta ahoz goraren baliabidea lantzea (CM01).

B) Eskolan bertako jarduerak

- Eskola magistraletan ikasgaien proposatzen diren edukiak lantzea (CM01, CM02 eta CM03).
- Ikasgelako praktiketan idazketa gaitasunak lantzea eta ahozko testuak lantzeko jendaurreko azalpenak ematea (CM01).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborateiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNekoAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ondoan ematen diren jarraibideak orokorrak dira. Ikasturtearen hasieran irakasle bakoitzak programan irizpide eta data zehatzak emango ditu programarekin batera:

- Irakasgaia modu jarraian ebaluatuko da ondorengo irizpideen arabera:

- 1) Idatzizko erreseina (3 puntu). Ariketa hau bakarka egingo da. Irakasleak zehaztutako artikularen gainean egin beharko da.
- 2) Jendaurreko ahozko azalpena (3 puntu). Hiruko taldeetan egingo da. Ikasleek aukeran izango dute erreseinarako erabilitako testu beraren azalpena egitea edo beste irakasgai baterako prestatu beharreko gairen baten inguruko azalpena egitea.
- 3) Ikasturte amaierako azterketa idatzia (lehen bi gaiak), dekanotzak ezarritako ohiko deialdiko egunean (4 puntu).

- Ohiko deialdian irakasgaia gainditzeko baldintzak:

- 1) Ikasgaiaren erdialdean egingo den ebaluazio-ariketa berezia egitea.
- 2) Irakasgaia gainditzeko idatzizko erreseina, ahozko azalpena eta amaierako azterketa idatzia, hirurak gainditu beharko dira. Halaber, ezinbestekoa izango da:

- a. Idatzizko erreseina egin ahal izateko erreseinarako artikularen eskema aurkeztea dagokion datan.
- b. Ahozko aurkezpena egin ahal izateko lantaldea eta aurkezpenarako eguna hautatzea dagokien datan.
- c. Idatzizko erreseina eta ahozko azalpena dagokien datan egin eta bakoitzean gutxienez 1,5na puntu lortzea.
- d. Ohiko deialdiko idatzizko azterketan gutxienez 2 puntu lortzea.

Oharra: baldintza hauetakoren bat ez betetzeak berekin dakar ohiko deialdiko kalifikazioa ez gainditua izatea eta, beraz, ezohiko deialdira (ekaina) joatea.

- Ohiko deialdiko azterketa saihesteko aukera:

Idatzizko urtarrileko azterketa ez da egingo baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badira:

- a. Ebaluazio-ariketa berezian 7 edo gehiago lortzea.
- b. Erreseinan eta ahozko aurkezpenen 7 edo gehiago lortzea.

- Bestelakoak:

- 1) Ohiko deialdian erreseina edota ahozkoa gainditu duenak ez ditu egingo atal horiei dagozkien ariketak ezohiko deialdian. Edonola ere, erreseina edota ahozko azalpeneko notak ez dira gordeko hurrengo ikasturteetarako.
- 2) Ikasleak ebaluazio-ariketaren bat aurkezteak berarekin dakar ohiko deialdian ebaluatua izatea eta, beraz, uko egiten diola ohiko deialdian "ez aurkeztua" bezala agertzeari.

Ikasleak ohiko deialdian EBALUAZIO JARRAITUARI UKO egin diezaioke eta 10 puntuko azterketa egiteko aukera izan, beti ere irakasleari IDATZIZ adierazten badio uko egin nahi diola ebaluazio sistema horri dagokion lauhilabetearen LEHENENGO BEDERATZI ASTEEN BARRUAN. Azterketa hau gainditzat emateko berau osatzen duten hiru atal nagusiak gainditu behar izango dira: atal teorikoa, erreseina, ahozkoa.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Lan metodologia eta ebaluazio irizpide zehatzak ikasturtearen hasieran programan bertan adieraziko dira. Hala ere, hona zenbait irizpide kontuan hartzekoak:

Ikasleek aukera izango dute 10 puntuko azterketa egiteko, baina aukera emango zaie, ohiko deialdian gainditu dituzten atalei dagozkien notak gordetzeko, idatziz hala eskatzen badute.

- Irakasgaia gainditzeko berau osatzen duten atal bakoitza gainditzea ezinbesteko baldintza da.
- Ezohiko deialdiari uko egiteko nahikoa izango da ezohiko azterketara ez aurkeztea

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Oinarrizko bibliografia
- Eskolan emandako azalpenak
- Egela-n edo fotokopistegian utzitako materiala
- Internetarako sarbidea eta helbide elektronikoa

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Clanchy, J. eta B. Ballard (1992), *Cómo se hace un trabajo académico. Guía práctica para estudiantes universitarios*. Zaragoza: Prensas Univ. de Zaragoza.
- Creme, Ph. eta M.R. Lea (2000), *Escribir en la universidad*. Barcelona: Gedisa.
- Diaz de Gereñu, L. (2002), "Ahoz gora irakurtzea 2Hren irakaskuntzan", in *Helduen Euskalduntzearen IV. Jardunaldiak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Garcia Azkoaga, I. (2007), "Ahozko azalpena unibertsitatean: ezagutzak ebaluatzeko tresna bat baino gehiago", in *Idiazabal, I. & Garcia, I. (ed.), (2007), Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. (sare-argitalpena: www.testubiltegia.ehu.es). 176-194. orr.
- Larringan, L. M^a (1993), "Euskara batua eta euskalkiak", *Jakin* 76, 11-39.
- Manterola, I. & Berasategi, N. (2011), *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: UEU.
- Zuazo, K. (2008), "Euskara normaltzeko bideak", *EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ*. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra. sareko kontsulta: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69832.pdf>
- Zubimendi, J. R. (2004), *Ortotipografia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Sareko kontsulta: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux formels à l'école*. Issy-les-Moulineaux: ESF Editeur. [6. atala: L'exposé oral].
- Garzia, J. (2008), *Jendaurrean hizlari*. Irun: Alberdania
- Idiazabal, I. & Garcia, I. (ed.), (2007), *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. (sare-argitalpena: www.testubiltegia.ehu.es).
- Idiazabal, I. & Larringan, L.M. (ed.) (1998), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak*. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza. Gasteiz: EHU eta Arabako Foru Aldundia.
- Zuazo, K. (2008), *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2008), *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

Aldizkariak

- Anuario del Seminario Julio Urquijo (ASJU)
- Bat Soziolinguistika Aldizkaria
- Fontes Linguae Vasconum (FLV)
- Lapurdum
- Senez

- Gogoa
- Ikastaria

Interneteko helbide interesgarriak

- EHUko Euskara Zerbitzua, Ehulku <http://www.ehu.es/ehulku/>
- Elhuyar eta EHUko Euskara Zerbitzua, Azpidazki <http://www.ehu.es/azpidazki/>
- Euskaltzaindia (1992-2012). “Euskaltzaindiaren arauak”. <http://www.euskaltzaindia.net/arauak>
- IVAP-HAEE (2000). Zalantza-dantza. <http://www.ivap.org/admeusk/ae29z.pdf>
- EHUko Euskararen institutua: http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_sarrera/eu_sarrera/sarrera.html
- EHUko Euskararen Errektoreordetzako kontsultagunea. [http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/indice_centro_consulta/eu_indice/centro_consulta.html] (Ehulku, Azpidazki, Ehutsi, etab.)
- EHUko Euskararen institutua: http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_sarrera/eu_sarrera/sarrera.html
- Euskaljakintza. <http://www.euskaljakintza.com/> (arauak, ariketak, etab.)
- Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.net (arauak, Hiztegi Batua, Jagonet, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-VI [EGLU I-VI].…)
- Eusko Jaurlaritza. [<http://www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu/>]
Hiztegia.net. www.hiztegia.net
- IVAP-HAEE (2000). Zalantza-dantza. <http://www.ivap.org/admeusk/ae29z.pdf>

OHARRAK